

Txillida Lekutik Euskal Museora

'Haizearen Orrazia'-ri buruzko erakusketa jarri dute Baionan, obraren 30. urteurrenaren harira

XAN AIRE
Baiona

Ez itsasoak, ez haizeak, ez denborak ez dute urratuko Eduardo Txillida eskultorearen *Haizearen Orrazia* Donostiatik. Baina, obraren 30 urteak ospatzeko asmoz, Txillida Leku museoak artistaren obra lau haizeetara ezagutarazi nahi izan du, eta lan horren balioa erakutsi. Baionako Euskal Museora ekarri dute Hernaniko museoko parte bat, artean *Haizearen Orrazia*-ren saileko errepikapenak, urtarilaren 6a arte.

Sailak edo errepikapenak etengabe agertzen dira Txillidaren ibilbide artistikoan. Esperimentazioaren eta barneko kezkei ihardesteko behar horren lekuko, *Haizearen Orrazia* saila, 23 eskulturak osatua. Lan neke eta erraldoia sentiarazi nahi du Euskal Museoko erakusketak. Paper gaineko lanek eta

modelo txikiek osaturik, obraren pausoguziak berriz egiten dira, baina-banaka. Rafa Zulaika Euskal Museoko zuzendariaren dola bakarria izan da *Haizearen Orrazia* saileko eskultura errealki ez ekartzea Baionara, pisuarengatik.

Bi zati ditu erakusketak. Lehenean, proiektua sorkuntzatik beretik agertu eta ibilbide osoaren fasea erakustearren, argazkiak, planoak eta agiriak biltzen dira, Txillidak amestutako ideiatik abiatu eta behin betiko ezarri zen arte. Bigarren zatian, sailaren kronologia pausoz pauso azaldua da, modelo txikiei esker.

Hala, 1950eko hamarkadan egindako lehenbiziko bi eskulturren berezitasunak nabaritzen dira: lan bakartuak, lerro zurrin eta arrazionalakoak, gogorak eta estatikoak. Dena den, bigarren orraziari halako bizitasuna ateratzen zaio, bide berri baten argi printza. 1960ko hamarkadaren bukaeran, lurrari atxikiak agertzeaz gain, espazioan zabaltzen den adarrezko egitura dardarkaria eusten zaio eskultura multzo bati.

1970eko urteetan, eskulturren atzapar sendoak soilago eta oinal-



Txillidaren obraren urratsak ezagut daitezke Euskal Museon. GAZTAKOIZ

dearekin orekatuago bilakatzen dira. Material berriak ere esperimentatzen ditu Txillidak garai horretan; zilarra eta altzairu herdoi-

lezina, adibidez. Azken lanari ekiten tenorean, naturarekin nor-gehiagoka ari da artista: adarrak soildu egiten dira, espazioa orraz-

ten duten gakoak bilakaturik. Horrela, altzairuzko blokeak makurtu eta grabitatearen aurkako borroka egiten dute.

Modelo txiki horiek laguntzeko, paperezko artelanak daude. Zirriborroak, Txillidak 1970eko hamarkadan eginak, edo *collage*-ak, batzuetan mundunetz estaliak, burdinazko eskulturren herdoila gogoan luketenak. *Esku* eta *Grabitatezkoak*, marrazki eta ebakitako paper bildumak gehitu dituzte, *Haizearen Orrazia* gogora ekartzen baitute, batez ere forma eta kontzeptua aldetik.

MUSEOAREN BIZITASUNA. Erakusketak «txikia baina zehatza» dela adierazi zuen Ignacio Txillidak, eskultorearen semeak, herenegun. «Ea lekuko hautetsiak, Baionakoak, inspiratzen dituen erakusketak honek», azpimarratu zuen Zulaika zuzendariak. Grenet Baionako auzapezak Donostiako *Haizearen Orrazia* bere herrian «betidanik desiratzen» duela jakinarazi zuen.

Euskal Museoaren bizitasuna bermatu nahi du Zulaikak. Horregatik, haur eta gazteentzako *Aurkikuntza* tailerra antolatuko dute, Txillidaren artelanak ezagutarazteko, eskolaz kanpoko ordutegietan, doan. Bestalde, *Museoko ortzeguna* dago ikasleentzat. Hitzaldiak ere egingen dira erakusketari buruz. Abenduan, Txillida Lekura eta *Haizearen Orrazia*-ra izanen da ateraldi bat.

BERRIAK gonbidatzen zaitu
40 sarrera ditugu harpidedunentzat

VI. nazioarteko **trikitixa**
JAIALDIA

D O N O S T I A

40 sarrera

KURSAALgo ganbara aretoan,
2007ko AZAROAREN 10ean, 19.00etan


BUKATUTA

deitu: 943-30 43 45

Aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria**

HILBERRIA

Zinemara behartutako **idazlea**



Izena: Peter Viertel. Jaiotze urtea: 1920. urtea. Lekua: Dresden, Alemania.

Ez da hilabete Deborah Kerr hil zela. Eta Peter Viertel zendu da orain, aktore eskoziarraren senarra. Idazlea eta gidoilaria. Espainiako Malaga hiriko erietxe batean zendu zen, herenegun, eta atzo eman zioten lurrak. Ospitalean jakin zuen emaztea zuena hil zela, eta, agidanez, ez zuen indarrak izan gertaera hura gainditzeko. Ingurukoek diotenez, berria jaso arte lanean segitu zuen Viertelek. Nobela bat idazten ari zen. Baina, ziurrenik, ez zuen asmorik obra

hori zinemara eramateko. Izan ere, duela gutxi idazleak adierazi zuen «bizi ahal izateko» lan egin zuela zinemaren. «Nobelak egiten dituen idazleentzat ez da oso ona filmak egitea», esan zuen. Hainbat nobela idatzi zituen: *Love Lies Bleeding*, *The Canyon*, *Bicycle on the Beach*, *Loser Deals...* Viertelek idatzitako *White Hunter, Black Heart* film bihurtu zuen Clint Eastwoodek, 1989an. Lagun zuen Ernest Hemingwayk, eta berak baino zorte hobea izan zuela uste zuen. «Hemingwayren lehen obrak apenas izan zuen arrakastarik, eta horren ondorioz, errazagoa izan zen harentzat zinemarik ez egitea eta Hollywooden sekula lan egin ez zuen egilea izatea». Zinema zuzendariekin harreman gorabeheratsuak izan zituen Viertelek. Hala onartu zuen berak duela urte batzuk. Hala eta guztiz ere, zinemak lagun handiak eman zizkiola aitortu zuen. John Huston eta Billy Wilder zuzendariak, besteren artean. Alemanian jaio zen, baina AEBetara joan zen bizitzera umea besterik ez zenean, Kaliforniara hain zuten. Alabaina, duela urte batzuetatik Espainian bizi zen. ■ IRUNE BERRIO